



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Maria Jesus Esteban

«Matematika leku guztietan dago, eta, aldi berean, ez dago inon»

Parisen duen lantokia astebetez utzi eta Euskal Herrian izan da Esteban, BCAMk antolatutako mintegi batean. Alonsotegiko matematikariak uste du gizarteak jabetu behar duela ikerkuntzak duen garrantziaz ongizatea handitzeko.

Gotzon Herrosilla

Bisitan egon da Euskal Herrian Maria Jesus Esteban matematikaria (Alonsotegi, Bizkaia, 1956), BCAM Matematika Aplikatueta-ko Euskal Zentroaren mintegi batean teoria kuantiko eta magnetikoaz berba egiteko. Parisen egin

zuen doktorego tesia, deribatu partzialetako ekuazioei buruzko hainbat problemaren inguruan, eta Parisen du lantokia gaur egun. Han, ikerketaren eremuan lan egiten du unibertsitatean, baina Frantziako SMAI Matematika Aplikatu eta Industrialetako Elkarte-ko presidente izendatu

zutenetik, bestelako lanetan ere murgilduta dago. Dioenez, orain, ikerkuntza bere lanaren %30 inguru izaten da, argitalpenen kudeaketa, ebaluazio lanak eta bestelakoak egin behar dituelako, baina badaki epe baterako kontua dela eta ikerkuntzara itzuliko dela.

G Matematika ikastea erabaki zenuen. Zerdela eta?

E Egia esateko, zalantzak izan nituen. Baina institutuan, matematika irakasle oso on bat izan nuen, eta, badakizu, askotan, irakasle ona daukazunean bultzatu egiten zaitu horrek.

G Masterra eta tesia Parisen egin zenituen. Garai hartan, kanpora joatea al zen horrelakoak egiteko biderik egokiena?

E Momentu hartan zaila zen hemen egitea. Unibertsitatea lehenengo urratsak egiten ari zen, eta oso jende gutxi zegoen horrelako tesi bat ongi zuzentzeko gauza zena. Garai hartan jende asko joa-

ten zen atzerrira ikasketak osatzera, Ameriketako Estatu Batuetara, Alemaniara edo Frantziara.

G Zuk zeuk zergatik aukeratu zenuen Paris?

E Frantziako Gobernuaren beka bat eskuratu nuen, eta, gainera, Paris hurbil zegoen, eta errazago zitzaidan noizean behin etxera etortzea. Beste aldetik, unibertsitateko nire irakasle batzuek bazituzten lagunak Parisen, eta kontaktuak egin zituzten, tesirako zuzendari bat lortu zidaten eta hainbat aholku eman zizkidaten.

G Hara joan zinenean, bertan gelditze-ko asmoarekin joan zinen?

E Ez, hori geroago etorri zen. Ni-